

## **HERNANIKO UDAL AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK, 2017**

### **EMAITZAK**

2017ko Udal Aurrekontuak herritarrek eztabaidatu eta zehazteko prozesua 2016ko udaberrian jarri genuen martxan. Uda aurretik herritarrek proposamenak egiteko aukera izan zuten bai gaikako eta auzoetako saioetan, bai internet bidez. 667 proposamen jaso ziren orotara. Ekainean, 667 proposamen horiek teknikarien eskuetan geratu ziren, eta proposamen bakoitzaren balorazio ekonomiko eta teknikoak egin zituzten.

225 proposamen geratu ziren aurrera egiteko (proposamen batzuk egitea aurreikusia zegoen, beste batzuk 500.000€ak gainditzen zituzten, batzuk ez ziren Udalaren eskumena, etab.), eta 92 proposamenetan sailkatu genituen hautako asko errepikatuak zeudelako edo antzekoak zirelako. Balorazio horien ondotik, irailean egindako 3 saio irekitan, herritarrek 92 proposamen horietatik 34 lehenetsi zituzten bi balorazio irizpideren baitan: (1) Aurreko urteetan proposamenik egin ez izana eremu horretan, eta (2) ingurumenari mesede egiten dioten proposamenak izatea.

Azkenik, 34 proposamen horietatik 10 hautatzeko aukera izan dute Hernanin erroldatutako 16 urtetik gorako herritarrek. Horretarako hiru modu izan dituzte: auzoetan (Portu, Florida - Etxeberri, Zikuñaga, Sorgintxulo, Kaxko, Karabel, Latsunbe Berri eta Lizeagan) egindako saioetan parte hartuz, udaleko web orrian jarritako galdetegia betez edota etxeetara bidalitako esku orrien bitartez.

Guztira 961 baliozko bozka jaso dira, 535 internet bidez eginak eta 501 buzoietan jaso ditugunak. 526 bozka emakumeek eginak dira, eta 435 gizonezkoek.

Ondorengo orrian ageri da proposamen bakoitzak jaso duen puntuazioa; halaber, baita 2017ko Udal Aurrekontuan txertatuko diren proposamenak ere.

Zk ia	PROPOSAMENAK	BOZKAK Aurrekontua	Metatuta (€)	
1	27. Nerabe eta gazteei zuzendutako kirol jarduera anitzen ikastaroak antolatu ( <i>parkour-a</i> , arrauna, eskalada, <i>skate-a...</i> ). /	456	9.000	9.000
2	13. Herriko hainbat gunetan ura edateko iturri gehiago jarri.	432	25.000	34.000
3	12. Udal eraikin eta kaleetako argiteria LED teknologiara egokitzen jarraitzeko diru-partida handitu.	412	40.000	74.000
4	31. Ikasle etorri berriei euskararen erabileran eta eskolako lanetan laguntza eskaintzeko programa martxan jarri.	407	15.000	89.000
5	7. Ave Maria parkean haurrentzat jolasteko azpiegitura jarri (egurrezko laberintoak, arrapala txikiak...).	399	10.000	99.000
6	9. Zuhaitzak landatu <b>orain</b> falta diren txerto eta berdeguneetan (Antziola, Lizarraga, Txilida <b>eta</b> Txantxilan).	392	15.000	114.000
7	5. Nerabe eta gaztetxoentzako kultur - aisialdi ekintza gehiago antolatu, Gazte Txokoan egiten dena indartuz.	380	25.000	139.000
8	26. Pertsona helduentzat gimnasia ariketak egiteko makinak jarri Politena parkean eta Karabeleko parkean.	361	22.000	161.000
9	3. Herriko parkeak konpontzeko diru partida bat jaso.	355	100.000	261.000
10	34. Zubipe futbol zelai nagusia inguratzen duen hormigoizko hesia kendu eta berria jarri.	352	25.000	286.000
11	8. "Smart Herria" izateko neurriak hartu (gauean argiteria murriztu, argia erregulatzeko detektoreak jarri...).	350	100.000	386.000
12	21. Zikuñaga auzoan Hiribusaren geltokian markesina jarri.	347	10.000	396.000
13	33. Zubipe futbol zelaiko atzealdeko zelai-berdegunea aldatu.	345	50.000	446.000
14	6. Prozesu parte hartzailea garatu sokadun parke bat definitzeko 8 urtetik gorakoek bertan eskalatu dezaten.	328	5.000	451.000
15	11. Kaxkoan, suteen prebentziorako detektoreak erosi eta bizilagunen artean kontzientziazio kanpaina antolatu.	317	9.400	460.400
16	24. Haur eskola eta Sagastialdetik Laiztiagara dagoen sarbidea hobetu.	292	15.000	475.400
17	28. Leoka labaderoa berritu eta atondu.	290	9.000	484.400
18	20. Hernanin "zentzumenen lorategia" sortu Nere Borda parke botanikoan (Noain herrian dagoenaren modukoa: landare aromatikoak, landaketa berriak, itxiturak, izendegia... ).	279	50.000	
19	16. Herrian zehar organikoa botatzeko etxolen funtzionamendua hobetzeko neurriak eta bitartekoak (estrukturantea, txikitze makina...) erosi.	275	50.000	
20	10. Programadorea jarri <i>skate</i> pista argizatzen duen argiteria itzali dadin bertan ibiltzeko ordutegia bukatzen denean.	274	3.000	487.400
21	2. Txotx denboraldian, komun publiko bat gehiago jarri Plaza Berrin.	269	5.500	492.900
22	19. Hondakinen lurpeko edukiontziak zirenetan zuhaitzak landatu.	242	9.000	501.900
23	29. Milagrosako kaperan hobekuntza lanak egin (fatxada konpondu eta margotu).	238	20.000	521.900
24	23. Hernaniarren artean birziklapena hobetzeko kontzientziazio kanpaina burutu.	234	50.000	571.900
25	32. <i>Fitnessa</i> eta giharrak lantzeko tresnak jarri espazio publikoetan (parke edo plazaren batean).	219	30.000	601.900
26	1.Udako igerilekuen eremua txakurren erabilera debekatu berau hesituz.	200	1.500	603.400
27	30. "Hernani"-ko zeramikazko plakak berreskuratu (Gipuzkoako Foru Aldundiak jarri zituen XX. mende hasieran eta Hernanin egin ziren) eta toki egoki eta ikusgarriago batean jarri	197	2.000	605.400
28	4. Zikuñagako ikastetxearen beheko aterpean pertsianak jarri, sortzen den ura eta aire korrontea ekiditeko.	180	20.000	625.400
29	15. Herriko sarrera-irteeretan eta kale luzeetan jartzeko radar mugikor bat erosi ibilgailuen abiadura kontrolatzeko eta murrizteko.	180	5.000	630.400
30	18. Zikuñaga auzoan bizikletentzako aparkaleku estalia egin.	168	6.400	636.800
31	17. Karabel auzoko zebra-bideetan piboteak jarri, kotxeek bertan ez aparkatzeko.	156	2.700	639.500
32	22. Biteri kultur etxean aldi baterako dauden aterkientzako plastiko zorroak kendu eta aterkiak gordetzeko takillak jarri.	119	10.000	649.500
33	25. Hernaniko turismo ereduaz hausnartzeko herritarren prozesu bat antolatu.	80	18.000	667.500
34	14. Komunikazio eta sentsibilizazio kanpaina antolatu pixohial eta konpresa ekologikoak ezagutarazteko.	75	50.000	717.500

\*Morez markatutako zenbakia duten proposamenak izango dira 2017ko Udal Aurrekontuak jasoko dituen